

EUSKALDUN GAZTERIARI

Zueri, euskaldun gazteak, donkitzendizkitzutet illara abek zuek zerate-lako gure ama Euskalerriarren malkoak oraingo chandan legortu bear dituzutenak. Badakizute gure sorterriaren etsai guztiak, Euskal-erria zapaltzeko; euskera zukututzeagatik asitzen dirala ¿eta nola ez?. ¿Zer izango da Euskal-erria, euskera izkutatzen danean?. Kampion jaunak esan zuen bezela, Españitar dierriaren izengabeko pillan izkutatuko dan erri bat. Badakizute ere, beste euskaldun geienak, naiz euskaldun onak izendatu, euskerari kaso guchi egiten diotela eta orregatik, arrotz eta echekoengatik, gure itzkuntza ari da galdutzen eta joango da betiko, orain arte bezela jarraituzten bagera.

¿Eta guk, euskaldun gazteak, asnasa eta otsarearen adiñetan gauden euskaldun gazteak, egon bear degu geldi, išilik eta besoak gurutzetuta gure itzkuntza nola galtzendan ikusiaz? ¿Ichi egin bear ditugu begiak eta utzi kanpoko jendeari, guk geiena maite bear degun gauza izkututzen? Euskaldun gaztiak, ¿badegu biotzik ala ez? ¿maite degu euskera edo ez?

Bai, eta eun aldiz bai. Baña ez da naikoa esatea. Erakutsi egin bearda ala dala; ortarako bear dezute mintzatu euskeraz eta itzkribatu euskeraz. Bi gauza oiekin zabaldukodegu gure itzkera eta adituko degu Euskalerrian euskeraz itzegiten eta ikusikodegu euskeraz itzkribatzen. Bestela galduak gera: oraingo gazte jendiak lo egiten badu, jagur euskera! Eta zuek, gazteak, euskera piztu deikezutenak; egun batian jakitendezutenian euskera galdu dala ¿ez zerate lotsatuko euskaldunak izan ziñatela esaten?

MUJKA-KO GREGORIO.